

MERCABILBAOK 632 TONA EMAN DIZKIO BIZKAIKO ELIKAGAIEN BANKUARI 2020AN

- **Banaketa zentroko 27 handizkarik egindako dohaintzari esker, Bizkaiko Elikagaien Bankuak 1.800 tona kudeatu zituen guztira, horietako % 35,1 Mercabilbaotik.**
- **Elikagaien banaketarako zentroak berretsi egin du gero eta jasangarriagoa eta egoera zaurgarrian dauden pertsonekin solidarioagoa izango den merkatu baten aldeko konpromisoa, are gehiago mundu mailako pandemiak eragindako gizarte-larrialdiek markatutako urte batean.**

Bilbon, 2021eko martxoaren 30ean.- Mundu mailako pandemiak markatutako urte honetan, Mercabilbaok leial jarraitu du gehien behar duten pertsonekin duen konpromisoarekin eta lankidetzarekin. Izan ere, 2020an Elikagai Unitatean lan egiten duten handizkako enpresek 632 tona elikagai eman dizkiote Bizkaiko Elikagaien Bankuari, hau da, aurreko ekitaldian baino % 24,8 gehiago. Urtero bezala, dohaintza gehienak frutak eta barazkiak izan dira.

Guztira, handizkako 27 enpresak egin dute ekarpena, eta 2020 osoan, Bizkaiko Elikagaien Bankuak guztira 1.800 tona genero kudeatzeari lagundu diote. Mercabilbaotik iritsitako dohaintza Bizkaiko Elikagaien Bankuak kudeatutako guztizkoaren % 35,1 izan da.

Irabazi-asmorik gabeko erakunde horrek elikagaien banaketa zentroko instalazioetan dagoen biltegi batetik gauzatzen du bere jardueraren parte bat. Biltegi horretan, boluntario talde batek, handizkariak emandako elikagai-soberakina sailkatu eta, gizarte helburuak dituzten erakundeen artean banatzen du, parrokien, gizarte-jantokien eta laguntza-zentroen artean, besteak beste.

Horrela, osasun-alarmaren ondorioz diru-sarrera barik geratu diren pertsonen gizarte-larrialdi egoerak markatu du 2020a. Duela urtebete pasatxo hasitako etxeko konfinamenduaren lehen asteetan, Bizkaiko Elikagaien Bankuaren biltegian ez zen jarduerarik egin. Bien bitartean, Mercabilbaok Elkarteari utzitako lokala desinfektatzeko eta garbitzeko protokoloa indartu zuen, ezarritako osasun-segurtasuneko neurriak betetzeko eta pertsona guztien osasuna babesteko. Gaur egun, protokolo hori gainerako instalazioetan bezala egiten da.

Mercabilbaok urtez urte gero eta Merkatu jasangarriagoa lortu gura du, eta, adierazi duenez, "Ez dago existitzen ez dena baino hondakin hoberik, eta Bizkaiko Elikagaien Bankuari egindako dohaintzaren kudeaketaren bidez, gizarte-lanaz gain, ingurumen arloko onura ere lortzen dugu, hondakinak sortzea saihestuz".

Informazio gehiago:

Eneriz Urrutxurtu

BLOK Comunicación Estratégica

637 55 83 52

eneriz@biokcomunicacion.com